



Arartekoaren 2014ko martxoaren 7ko ebazpena. Horren bidez, Bergara udalerrian atez ateko hondakin-bilketa sistemaren ezarpenari buruzko jarduketa amaitzen da.

Aurrekariak

1. Bergara Garbia plataformak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, atez ateko hondakin-bilketako sistema inposatzearen aurka eta 5. edukiontzia-aren defentsan.

Plataforma horrek Arartekoaren esku hartzea eskatu du, uste duelako udaleko gobernu taldeak atez ateko sistema ezarri nahi duela prozesuaren hasieratik herritarrek parte hartzeko prozesu integral bat egin gabe.

Horrela, uste dute Bergarako Udalak ez duela kontuan hartzen herritarren borondatea, bizilagunetako askok adierazi dutena. Borondate horren erakusgarri da erreklamazioa egin duen plataformak (beste ekimen batzuen artean) 4.691 sinadura bildu zituela. Sinadura horiek 2012ko martxoan eman zizkioten udalari.

Bestalde, atez ateko sistema nahitaez abiatzean sortuko diren ondorio ekonomiko eta sozial kaltegarrietatik kezkatuta daude. Azaldu dutenez:

- Bilketaren kostua gutxienez %50 garestiagoa da 5. edukiontzia-arena baino. Kostu horiek familien ekonomiak ordainduko ditu.
- Poltsak eta kuboak zaintzeko eta miazteko sistema bat sortu da. Informazio pertsonal eta pribatua eskuratzen da horrela, izenarekin eta abizenarekin. Horrek pribatutasuna kaltetzen du.
- Inpaktu estetiko negatiboa, usain txarrak eta osasun publikoko arazoak.

Finean, ez daude neurri horiekin ados, udalerriko bizilagunen borondatea kontuan izan gabe ezarriko direnak.

2. Erreklamazioan deskribatutako kontuak baloratu ondoren, Bergarako Udalari kexaren berri emateko eskatu genion, hura baloratzeko egokia irizten zion dokumentazioa aurkeztuz.

Bergarako Udalak informazio eskaera horri erantzun zion. Egoki iritzi zion dokumentazioa eman zigun eta zenbait gogoeta azaldu zizkigun, orain laburbilduko ditugunak. Udalak ondokoa adierazi zuen:

- Udal gobernuak ez du hondakin bilketako sistema bat inposatu nahi, ezarri baino.





- Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ez beste ezein legek ez dute udala behartzen bizilagunak kontsultatzera hondakinen bilketa nola egin behar den. Zerbitzu hori nahitaez eman behar dute udal guztiek eta, horrenbestez, uste dute kexak ez daukala inolako lege oinarririk.
- Debagoienako Mankomunitateko kontu hartzaileak 2013ko martxoaren 22an egindako txosten ekonomikoa bidali zigun udalak. Atera duten ondorioa da ikuspegi juridikotik nahiz ekonomikotik Bergara Garbiak egin dituen baieztapenak okerrak direla.
- Ez da pribatutasuna kaltetzen. Izan ere, kontrolaren helburu bakarra hondakin mota bakoitza bere lekuan sar dadila da.
- Inpaktu estetikoaren eta osasunaren gaian, udalak uste du oso kontu subjektiboa dela. Sistema aldaketak, berriz, hobekuntzak ekarriko ditu, hondakinak oso denbora laburrez egongo direlako kalean.

Amaitzeko, udalak, laburbiltzeko, beste argudio batzuk azaldu ditu bere jarrera azaltzeko. Hauek dira, laburrean:

- Udalak legitimitatea dauka, bere hauteskunde-programak azken udal hauteskundeetan jasotako babesak kontuan izanik. Egitarau horretan hondakinak biltzeko sistemaren aldaketa proposatu zuen.
- Ezarriko den sistema bat dator ingurumen gaitako plan estrategikoarekin, herritarren parte hartzearekin izapidetua.
- Ezarriko den sistema bat dator Europak ematen dituen irizpideekin.
- Birziklatzen diren hondakinen portzentajea oso handia izatea errazten du bilketa sistema honek. Horri esker ez da beharrezkoa azpiegitura garestiak eraikitzea, hau da, errauskailua eta hondakin toxikoen hondakindegia.
- Udaleko gobernu taldearentzat natura babestea oinarrizko printzipioa da. Birziklatzea ez da herritarren eskubidea, betebeharra baino.
- Herritarren osasuna babestea ere oinarrizko printzipioa da. Ez dago frogatuta, dauzkagun informazio-iturrien arabera, hondakinen errausketak pertsonen osasuna ez duenik kaltetzen.
- Sistema honen bidez konponbide ekonomiko eta ekologikoa ematen zaio zaborraren arazoari.

Horregatik, udalak uste du hondakin bilketa sistema atez ateko sistema izatea, erabaki legala izateaz gain, guztiz zilegi dela.

Aurrekariak kontuan izanik, kexa-espeditente honen inguruan erakunde honek atera dituen ondorioak jakinarazi nahi dizkizugu:



Gogoetak

1. Baloratu behar den lehenbiziko kontua ezarriko den hondakin-bilketako sistemari buruzkoa eta udalerriko bizilagunetako batzuek adierazitako borondatea kontuan hartzeari buruzkoa da. Udalak uste du kexa horrek ez daukala legezko oinarririk, bizilagunei kontsultatzea ez delako nahitaezkoa.

Hondakin-bilketako zerbitzua udalaren eskumeneko zerbitzua da. Udalerrri guztiek eman behar dute nahitaez (Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 26. artikulua). Kasu honetan, Bergarako Udala Debagoienako Mankomunitatean dagoenez gero, zerbitzua erakunde horrek ematen du, etxeko hondakinen bilketa arautzen duen ordenantzaren arabera (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 16koa).

Ordenantza horrek bilketa sistemak arautzen ditu. Horien artean atez ateko bilketa sistema, hondakindegien bidezko bilketa eta beste mota batzuk (adibidez Garbiguneetako bilketa) jasotzen dira. Udalerrri bakoitzerako bilketa sistema zehatza mankomunitateak emango du, udal bakoitzak zehaztutakoaren arabera.

Gaiari buruzko legeria sektoriala hondakinen eta lurzoru kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legean islatzen da. 12.5) artikuluaen arabera, tokiko erakundeei hau dagokie:

“Como servicio obligatorio, la recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos generados en los hogares, comercios y servicios en la forma en que establezcan sus respectivas ordenanzas en el marco jurídico de lo establecido en esta Ley, de las que en su caso dicten las Comunidades Autónomas y de la normativa sectorial en materia de responsabilidad ampliada del productor. La prestación de este servicio corresponde a los municipios que podrán llevarla a cabo de forma independiente o asociada.”

Bestalde, legearen 17. artikulua zehazten du etxeko hondakinak tokiko ordenantzek agintzen duten moduan eman behar direla tratatzeko.

Hau da, udalaren eskumena da hondakinak biltzeko, berrerabiltzeko prestatzeko, birziklatzeko eta balorazitzeko zerbitzua arautzea, aipatutako lege sektorialean ezarritako printzipio eta betekizunen esparruan. Hala eta guztiz ere, udalek beren baliabideekin edo mankomunitatearen bidez (kasu honetan bezala), edozein kudeaketa sistema aukeratzeko dutela ere, hondakinak kudeatzeko 22.1 a) artikuluan ezarritako gutxieneko helburu bereziak bete behar dituzte. Hau dakar: *Antes de 2020, la cantidad de residuos domésticos y comerciales destinados a la preparación para la reutilización y el reciclado para las fracciones de papel, metales, vidrio, plástico, biorresiduos u otras fracciones reciclables deberá alcanzar, en conjunto, como mínimo el 50% en peso.”*



Bizilagunek udal erabakietan zuzenean parte hartzeari dagokionez, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 69. artikulua bizilagunek tokiko bizitzan parte hartzea arautzen du. Hau dakar:

“1. Toki-korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jardueri buruz eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatuko dute.

2. Korporazioek beren burua antolatzeko ahalaz baliatuz ezar ditzaten partaidetzako moduek, baliabideek eta prozedurek inolaz ere ezin izango dituzte gutxietsi lege bidez araututako ordezkari organoari dagozkien erabakitzeko ahalmenak.”

Beraz, bizilagunek tokiko bizitzan parte hartzeko prestatzen diren tresnak gorabehera, azken erabakia ordezkari organoena da eta, zehazki, gai honetan, eskumena udaleko osoko bilkurarena da. Aurrekarietan esan dugunez, osoko bilkurak, bere unean, gehiengo osoz atez ateko hondakin-bilketa sistema hautatu zuen, sistema hori zelakoan gaikako bilketa onena bermatzen zuena.

Zentzu berean, udal korporazioari dagokio azken erabakiak hartzea udalaren eskumeneko eta toki izaerako gaiak herri kontsultara ekartzekoan, gai horiek bizilagunentzat interes berezia daukatenean. Beraz, hemen ere ezin zaio udalari ezer leporatu legearen aldetik.

Hemen adierazitakoa gorabehera, gogoeta hauen seigarren atalean hausnarketa bat egin dugu, udal erabakiak hartzerakoan bizilagunek izan beharreko partaidetzari buruz.

2. Ezarriko den hondakin-bilketa sistemaren **kostu ekonomikoari** dagokionez, erreklamazioa egin duen plataformak uste du atez ateko bilketa-sistema %50 garestiagoa dela 5. edukiontzia bidezko bilketa baino.

Txosten ekonomikoa, Debagoienako Mankomunitateko kontu hartzaileak emanak, adierazten du balorazio bat egiteko orduan kontuan izan behar direla zerbitzuaren zuzeneko nahiz zeharkako kostuak, finantzeko eta amortizazioko kostuak barne, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan ezartzen denez.

Beraz, kontu hartzaileak bi bilketa-sistemak (atez atekoa eta bosgarren edukiontzia) erkatzean uste du ezin dela “bilketa” sistema bakarrik erkatu; hondakinak tratatzearen eta deuseztatzearen kostuak ere kontuan izan behar dira. Izan ere, 2011. urtean, adibidez, bilketa-kostuak zerbitzu osoaren kostuaren %50 baino ez ziren izan, zerbitzua oso-osorik hartuta. Horrenbestez, sistema osoaren klabea tratamenduaren kostuan dago, Debagoienako Mankomunitateak sistema ezartzeko egin duen bideragarritasun planak azaltzen duenez.



Txostena sinatu zuen teknikariak uste du Usurbilgo Udalak argitara eman berri dituen datu errealek bideragarritasun plan horretan azaldutakoa berresten dutela. Horrela, laburbilduta, txosten horretatik ondorioztatzen da atez ateko sisteman bilketa-sistema garestiagoa dela, baina tratamenduaren kostuak asko murrizten direla, eta papera eta ontziak saltzearen diru-sarrerak gehitzen direla, gai horien gaikako bilketa ere areagotzen den neurrian. Horregatik, ondorioztatu du ikuspegi juridikotik nahiz ikuspegi ekonomikotik ez dela zuzena Bergara Garbia plataformak egin duen baieztapena, hau da, ezarri nahi den sistema garestiagoa dela.

Lehenik eta behin esan behar dugu gaur egun, eta geroago esango duguna ukatu gabe, ez dagoela legezko araurik zerbitzu horiek eduki behar duten kostu ekonomikoa zehazteko.

Ezarri beharreko zerbitzuari eta bere ezaugarriei buruzko erabakia hartzerakoan, erabakia ezin da kostu ekonomikoaren irizpidearen arabera izan bakarrik. Horrela, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen maiatzaren 2ko 7/1985 Legeak (Tokiko Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasuneko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak aldatua), 85.2 artikuluan, kudeaketa moduei dagokienez, adierazten du zerbitzu publikoak ahalik eta modurik iraunkorren eta eraginkorrenean kudeatu behar direla.

Kontzeptu juridiko zehaztugabeak dira hauek, baina edonola ere zerbitzu baten iraunkortasunak eta eraginkortasunak alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak uztartu behar dituzte, ezarri behar den konponbidea ebaluatzeko. Konponbide horrek sortutako hondakinen tratamendu eraginkorra lortzeko helburua bilatu behar du (Ekonomia Iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 2 eta 3.6 artikulua).

Udalek eman behar dituzten zerbitzuen artean hondakinen bilketa eta tratamendua daude. Zerbitzuen benetako kostuari dagokionez, 7/1985 Legearen 116 artikulua berriaren aurreikuspenak aipatu behar dira (27/2013 Legeak sartu zuen artikulua hori). Zehazki, artikulua horrek adierazten du tokiko entitateek ematen dituzten zerbitzuen benetako kostua urte bakoitzeko azaroaren 1a baino lehen kalkulatu behar dutela eta foru aldundiari jakinarazi. Aldundiak zerbitzuen benetako kostua zehazteko kalkulu-irizpideak garatu beharko ditu. Kostuak foru aldundiak proposatutakoa baino handiagoak badira, zerbitzua benetako kostuak murrizteko moduan emateko modua erabaki beharko du aldundiak. Kontu horrek, ordea, araudi-garapen handiagoa behar du, eta oraingoz ez da egin.

Aurrekoa esanda, eta ezar daitezkeen sistemen kostu ekonomikoari buruzko argudioei dagokienez, ezin da ebazpen honen xedea izan Bergarako Udalak emandako datuen analisi xehea egitea. Horrenbestez, ezin dugu baloratu hondakinak kudeatzeko sistema bat a priori garestiagoa den beste bat baino,



eta zein proportziotan, Bergara Garbia plataformaren planteamendua mankomunitateko teknikariaren ondorioarekin kontrastatze aldera.

Halere, udalak emandako parametroak erabili arren, esan behar dugu sistema guztien kostuak (Debagoienako Mankomunitatearen eta Usurbilgo Udalaren sistemena zehazki, kontu hartzailearen txostenean aipatuak) aztertzen eta erkatzen dituen azterlan orok premisa berbera daukatela: bosgarren edukiontziko sistemaren emaitzak (beste udalerrri batzuetan ezarritako datu eta esperientziengatik: Beasain, Zarautz etab) askozaz ere txikiagoak direla gaikako bilketan. Gainera, papera eta ontziak saltzeagatiko itzulketak askozaz ere txikiagoak dira atez ateko sistematan baino. Horregatik, tratamendu gastuetan askozaz ere gehiago ordaindu behar dute, zabor bolumen handiagoa sortzen dutelako.

Gai horri buruz esan behar dugu emandako datuak errealitate jakin batzuei dagozkiela. Errealitate horiek, ordea, une honetan, gairidituta gera litezke, zenbait udalerritan abian jartzen ari diren esperientzia berriak eta alternatiba konbinatuak ikusita.

Horrela, prentsan azaldutako informazioaren arabera, Beasaingo Udalak (mankomunitatearen bideragarritasun planean aipatzen den adibide bat jartzearen) bosgarren edukiontzia aukeratu du, txip batekin, ondo erabiltzen duten herritarrei %20ko hobaria emanaz. Aste honetan adierazi dute familien %75ak dagoeneko izena eman duela sistema hau erabiltzeko. Legazpiko Udalak emandako datuak ere aipa ditzakegu: bosgarren edukiontzia eta atez atekoaren sistema mistoa jarri dute. Lehenengo emaitzen arabera, gaikako bilketak, bosgarren edukiontzia bidez, tokiko agintariek ezarritako mailak bete ditu.

Laburbilduz, asmatzen ari diren esperientzia berriak ikusita, uste dugu ebaluazio berriak egin beharko direla bilketa-sistemako bakoitzaren benetako kostua zehaztu ahal izateko, konparazio baliokideak eginez, ezarritako bilketa-ereduak finkatzen diren neurrian. Hori guztia gorabehera, zerbitzuaren eraginkortasuna eta iraunkortasuna ingurumeneko eta gizarteko parametroak kontuan izanik ere neurtu behar dira.

3. Bergara Garbia plataforma, bestalde, kezkatuta zegoen atez ateko sistemak **privatutasuna** kaltetuko zuelako. Izan ere, sistema honek ontzi pertsonalatuak miatzea eta zaintzea zekarren, eta ontzietan informazio pertsonal eta pribatua dago.

Udalak alegazio honi emandako erantzunean adierazi du gaikako bilketa-sistema dela, eta beraz hondakin mota bakoitza bere lekuan sartzen dela egiaztatzea dela kontrolaren helburua. Izan ere, hondakin motak nahastuta emateak eragina dauka sistemaren emaitzetan.



Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (DBLO) 3. artikuluan honela definitzen du datuen tratamendua:

“Automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezereztea eta lagatzea ahalbidetzen dutenak.”

Gure ustez, hondakinen kudeaketan ager daitezkeen balizko datuak ez dira DBLOan sartzen. Izan ere, hondakin horiek ematen diren xederako soilik erabili ahal dira, hau da, birziklatzeko edo deuseztatzeko. Ematen diren hondakinak nekez sartu ahalko dira eragiketa eta prozedura teknikoetan, lege horrek azaltzen duen moduan esplotatzeko.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da zerbitzua ematen duten langileek beren funtzioak betetzean ezagutzen dituzten datuak isilpean gordetzeko betebeharra daukatela.

Madrilgo Justiziako Auzitegi nagusiak 2010eko ekainaren 17an emandako epaian, Madrilgo Udalaren Espazio Publikoen Garbiketako eta Hondakinen Kudeaketako Ordenantzaren zenbait artikulua inpugnatu zirenean, baloratu zuen zabor-poltsen miaketak pertsonen pribatutasunerako eskubidea zaurtzen zuen ala ez. Ondorio hau atera zuen:

“Las personas que depositan en las bolsas de basura sus desechos para entregarlos a la Administración o a un gestor autorizado o registrado, para su posterior reciclado o valorización conocen o deben conocer que pierden el derecho de propiedad sobre esos desechos, y que el destino de la bolsa de basura es ser abierto para reciclar, valorizar o eliminar su contenido. Las bolsas de basura no son arcas de depósito estancas y cerradas que vayan a ser selladas y enterradas.”

Laburbilduz, gure iritzian, ezin dezakegu esan udalen eskumenak betez ezartzen diren hondakin bilketa-sistemek DBLOaren aurreikuspenak urratzen dituztenik. Mankomunitatearen erantzukizuna da, hondakinen jabea den aldetik, informazioa legean ezarrita ez dauden iruzurrezko moduetan erabiltzea ekiditea.

4. Bestalde, plataformak uste du atez ateko sistemak eragin estetiko handia, usain txarrak eta osasun arazoak sortzen dituela.

Aurrekarietan azaldu dugunez, udalak inpaktu estetikoaz esan du oso kontu subjektiboa dela. Pentsatzen du hondakinak botatzeko gaur egungo sistema ez dela ondo erabiltzen. Askotan zaborra lurrian aurkitzen dela eta kaleak zikin daudela. Sarritan ez dira errespetatzen zaborra uzteko ordutegia ez egutegia. Horregatik, zaborra zenbait egunez egon daiteke kalean, eta usain txarra atera.



Sistema aldatzean, berriz, hondakinak oso denbora laburrean egongo dira kalean.

Osasun arazoei buruz erantzun dute egungo sistemak ez duela osasun arazorik sortzen. Horrenbestez, ezarri nahi den sistema berriarekin ere ez da horrelakorik egongo.

5. Lege-esparrua gorabehera eta kexan azaldu diren eta aurreko ataletan baloratu ditugun gainerako kontuak gorabehera, herritarren eskaerei buruzko beste kexa batzuetan azaldu dugunez, aurkeztutako kexaren terminoak eta udalaren erantzuna ikusita, azken gogoeta bat egin behar dugu herritarren parte hartzeaz eta herritarren parte hartzeak organo eskudunen erabakietan izan ahal eta behar duen eraginaz.

Herritarrek udal araudiak egiteko, aldatzeko eta berrikusteko prozeduretan dauzkaten eskubideak, oro har, ordenantzetan eta hirigintzako planetan alegazioak edota iradokizunak aurkezteko aukera izatean gauzatu izan dira tradizionalki. Halere, sortu diren tresna juridiko berriek, batez ere ingurumenaren arloan, eta herritarren sentsibilizazio handiagoak jendeak oro har erabakiak hartzean izan behar duen papera sustatzea eta sakontzea ekarri dute. Demokraziaz eta parte hartzeaz egin dugun gomendio orokorrean¹ gai hau luze jorratu dugu. Adierazi dugu herritarren parte hartzea tresna baliagarria dela gatazkak kudeatzeko.

Parte hartzeko printzipio honek isla berezia dauka ingurumen gaitan informazioa eskuratzeari buruzko, erabakiak hartzean parte hartze publikoari buruzko eta justizia eskuratzeari buruzko biltzarrean, Aarhuseko Hitzarmena deritzona (1998ko ekainaren 25ean sinatua eta Espainiak 2004ko abenduaren 15ean berretsia). Hitzarmen haren ondorioz, jendearen garrantzia sendotu zen erabakiak hartzerakoan, European, estatuan, autonomia-erkidegoan eta udaletan beste arau batzuk garatzea ekarri baitzuen. Hitzarmenaren hitzaurreak hau dio:

“Reconociendo que, en la esfera del medio ambiente, un mejor acceso a la información y una mayor participación del público en la toma de decisiones permiten tomar mejores decisiones y aplicarlas más eficazmente, contribuyen a sensibilizar al público respecto de los problemas medioambientales, le dan la posibilidad de expresar sus preocupaciones y ayudan a las autoridades públicas a tenerlas debidamente en cuenta.

Pretendiendo de esta manera favorecer el respeto del principio de la obligación de rendir cuentas y la transparencia del proceso de toma de decisiones y garantizar un mayor apoyo del público a las decisiones adoptadas sobre el medio ambiente.”

¹ <http://www.ararteko.net>



Hitzarmenaren sakoneko filosofia herritarren paperari balioa ematea da, herritarren parte hartzea ezarri nahi den politika publiko ororen emaitzak bermatzeko aukera ezin hobea delakoan. Hondakinak tokiko eremuan gaika biltzea gai nagusi horren erakusgarri bikaina da. Hau da, proiektu gutxitan behar da udalerriko bizilagun guztien parte hartze zuzeneko honetan bezala, gaikako bilketaren mailak ahalik eta onenak izateko. Udalerriko pertsona guztiengan dauka eragina hartutako erabakiak, denek sortzen dituztelako hondakinak. Erronka da denek parte har dezatela, aukeratutako sistemaren ezarpenaren emaitzak helburuen tamainakoak izan daitezten.

Gainera, hondakinen kudeaketari buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak berriaz jasotzen du hondakinen bilketako informazioaren eta parte hartzearen printzipioa, bai ezartzen den kudeaketa-sistemari buruzko erabaki publikoetan, bai hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko egoeraren abaguneaz giten den txostenari dagokionez.

Horrenbestez, azaldutako parte hartzearen filosofia aplikatuz, Bergara udalerrian adostu den gaikako bilketa-sistemak sortu duen gatazka baloratzean, gogoeta bat egin beharko du udalak, aukeratutako alternatibak, nahiz eta gaikako bilketa-sistema eraginkorragoa izan, epe luzean beste arazo batzuk ez ote dituen sortuko, udalerriko bizilagunetako batzuk ez daudelako ados edota guztiz kontra daudelako. Gure gogoetetako bigarren atalean azaldu dugunez, erabakia hartzerakoan, kontuan izan behar dira alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta gizartekoak.

Zalantzarik gabe, une hauetan azpimarratu ahal dugu gai honetan dagoen gatazkak eta herritarren mobilizazioek kontzientzia handiagoa sortu dutela hondakinak bereizita utzi beharri buruz. Horrek hondakinen gaikako bilketaren portzentajea betetzeko helburua lortzen lagunduko luke. Gainera, azaldu dugu horrek denak ekarri duela beste gaikako bilketa-sistema batzuk ezartzen hastea, adostutako modu batean. Sistema berri horiek metodo batzuen eta besteen alderdiak konbinatzen dituzte. Horrek gatazka gainditzen lagundu ahal du eta gaikako bilketa eraginkorragoa izatea ekar dezake.

Hori guztia kontuan izanik eta 2013ko maiatzaren 6an Legazpiko Udalari buruz eman genuen ebazpenean ezarritakoa ikusita, uste dugu Bergarako Udalak adostasunerako bideak ireki beharko lituzkeela, etxeko hondakinak biltzeko sistemaren arazoaren inguruan sortu den herritar mugimendua bere potentzialtasun osoarekin aprobetxatzeko.

Ondorioz, gure jarduketa amaitutzat ematen dugu, ondoko ondorio hauekin:



Ondorioak

1. Bergarako Udalak eskumena dauka egokien deritzon hondakinen gaikako bilketa-sistema aukeratzeko, hondakinen legeriak jasotzen dituen iraunkortasun irizpideak (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak) kontuan izanik. Ezartzen diren helburuak betetzeko, bilketa egin behar duten herritarren parte hartzea ezinbestekoa da.
2. Hondakinen gaikako bilketa-sistema bat ezartzeko edozein proiektuk arrakasta handiagoa izango du sisteman parte hartu behar duten bizilagunen artean kontsentsu handia lortzen badu.
3. Zentzu horretan, Bergarako Udalak kontsentsu-politika bat planteatu beharko luke, sortu den gatazka egoera gainditzeko eta herritarren kezka hondakinen gaikako bilketa-maila handienak lortzera bideratzeko.